

ARRASATE

PRESS

Arrasate 1992ko maiatzak 29, 152. zenbakia

ARKOk argitaratua Udalaren laguntzarekin



**KRISTINA
GARAIZABAL**
Prostituzioaren
ikuspegi berria
proposatzen



Maiatzaren 29an

Arrasate greban

Joseba



G
GARAGORRI
OPTIKOAK

**Eguzkitarako
betaurrekoak %50ean**

**Varilux betaurreko progresiboak
Lentila bigunak 15.000 PTAtan**

Iturriotz, 29 Tfnoa: 79 16 98 ARRASATE Bidedurutzeta, 13 Tfnoa: 76 13 73 BERGARA

Elegidos los finalistas de lo...

ARRASATE
AEDren Batzarre Nagusia
Finalisten izenak
AED-ko Ekintzak
AED-ko Ekin emakume taldeak
AEDko Ekin emakume taldeak antolatuta
Arrasate Euskaldun dezagun, aurrera
Colonias Abierri partecipazio batek hartu in herri aurrera AEDK antolatut
620 bazkiderekin guzti hau
Herrietako aldiak Arrasaten, etzi...
Loka'ari buruzko iharu...
Lai Arrasate Telebista, errealitate gorpuztu den herri-komunikabidea
1.000rekin, zer ez?



ELKARTEA

BAZKIDE IZAN NAHI DUT

Izen-deiturak
Helbidea
Etxeko telefonoa

Moztu papertxo hau eta helbide honetara bidali:
AED, Pablo Uranga, 4 etxabea. 20.500 ARRASATE, edo 79 54 46 ifnora. deitu.

ARRASATE PRESS ASTEKARIA

Argitaratzailea:

ARKO. Arrasate Komunikabideak-AED
Azoka kalea, 1 20.500 ARRASATE.
Tfnoa: 77 05 65 Faxa: 77 09 40

Laguntzailea:

Arrasateko Udala

Zuzendaria:

Arantzazu Loidi

Erredakzioa:

Beñardo Kortabarria, Rosa Mondragon.

Maketazioa:

Goio Arana

Publizitatea:

Kepa Olliden

Tfnoa: 77 08 15

Kontabilitatea:

Agurtzane Gaintzarain

Erredakzio-kontseilua:

Jon Mujika, Karmele Zuazubiskar, Jabier
Ozaeta, Maribel Aranburu, Patxi Montero eta
Iñaki Mendiguren

Kolaboratzaileak:

Mikel Irizar, Eukeni Olabarrieta, Arantxa
Lizaso, Gerardo Markuleta, Blanka Jauregi,
Joseba Vallés, Karmelo Uribarren, Hankamotz,
Atalataikoan, ASA taldea, Xabin Arrieta, Jon
Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-
Arraburu, Andoni Urzelai, Koldo Rodriguez, Jon
Andueza, Udalako Ingurugiro Eskola, Juan
Bautista Agorria, Leintz Bertsoeskola.

Inprimategia:

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati)

Banaketa arduraduna:

J. Ozaeta

Copyright:

ARRASATE PRESS

Tirada: 6.100 ale

Lege-Gordailua: 1124/88

ISSN: 0214-4654

Frankeo kontzertatua: 37-60

ARRASATE PRESSEK ez du bere gain hartzen aldizkarian
adierazitako esanen eta eritzien erantzunkizunik.

Aldizkari honek Eusko Jaurilaritzako Kultura eta Turismo
Sailaren laguntza jaso du.



ARRASATE PRESS paper birziklatuan
egiten da.

Enpresako krisia eta konpetibitatea

Deba Garaiko langabetuen kopuru latzak salto egin du azken egunotan prentsara, industri ihardueraren atzerakadaren eta datozen urteetan larriagotu egin daitekeen prozesu bat xurgatu eta amortiguatzeko enpresaren bultzadarik ezaren erakusle, zalantzarik gabe.

Kooperatibetako asanblada polemikoek ikuspegi kontrajarriak ikusarazi dituzte ordainketen abanikoari buruz eta pasio-bolada handiak etorri dira izarren mailara jasotako gai baten gainera, beharbada begibistako, hurbil eta hungigarriena delako.

Baina benetan kezagarria dena enpresaren muinetan dagoena da, epe motzean ikusi ez eta gizartearen sentsibilitatea mintzen ez duena, hain zuzen ere etorkizunean beldurrik gabe sartzeko konpetibitate gaitasunik ba ote dugun ala az. Azken finean, frustraziora edo/eta emigratziora kondenaturik dagoen gazteriarentzat aukerak ematea, industriaren hedapen eta sendotasunaren erritmoak aldatzen ez badira.

Ondasun sozial delikatua eta erabakiorra da gure enpresa herrien bizitzarako, ura bezala behar dugu, gure euskarria da eta kanpokaldeko

konpetentzia basatiarekin enfrontaturik bizi gara. Arerio berriak entrenatuta daude gimnasia konpetitiboan eta enpresa gestionatzeko erak beste batzuk dira.

Ez du balio "batzuk pentsatzen eta beste batzuk egiten" ikuspegi zaharrrak, kronometroaren arabera eta pieza finkoen kopurua eta bat gehiago ere ez, hau da, estandaren arabera lan egiteak. Porrota da. Prozesuen "Eten-gabeko Hobekuntza" nagusitzen da, produktibitate hazkorra, eta enpresa, jabetza zentzuarekin enfokatzen bada bakarrik da hori posible, langile guztiena ez izan arren.

Enpresaren arrakasta bere langile guztien inplikazio eskuzabal eta inteligentean aurkitzen dela deskubritu dutenekin gaude, konpetibitatea gero eta gehiago enpresaren barruan dagoela ulertu dutenekin. Prezioen presioa eta kalitatea jasateko produkzio moduen iraultza egin behar da, eta aurrerapena konfrontazioarekin identifikatzen duen talentu soziala aldatzetik hasi.

Enpresa pribatuak ezin dio gestio eredu horri eutsi eta suizida izango da beste batzuk utzia duten norabidean ekitea.

JESUS LARRAÑAGA LIZARRALDE

Memesa 79 42 22



Zatoz gure gazte moda ezagutzera

Italora Lizenziatua, 5
Tfnoa: 77 00 81
ARRASATE



gili gili

Iturriotz, 9 Tfnoa: 79 94 57



Liburu eta paperdenda
Bidaiarako eta larruzko artikuluak

Iturriotz, 4 Tfnoa 79 14 84



DAMIKART

Estetika eta lleapaintzaile
Eskola
M.E.C.-ek homologatua

Bittor Sarasketa, 7-3.
Tfnoak: 12 15 18 / 12 71 52 EIBAR

**I
R
T
A
B
E
R
N
A**

Ferrerias kalea
ARRASATE
Tfnoa: 79 71 80

Marketing-a bai, baina...

Haurren kopurua gero eta txikiagoa dela, eta horren ondorioz hezkuntzaren etorkizuna nola datorren, erraz ikus daiteke Arrasate Pressen azken alean.

San Frantzisko Xabier Ikastolak, bere Marketing Kanpainaren barruan, titulodun zerrenda luze bat argitaratu du, bertan ibili zirela adieraziz.

Hau noski, egin borobil bat dela argi eta garbi dago, baina honetaz Almen, San Viator, Eskola... eta beste hainbat ikastetxek zer pentsatzen duten jakitea gustatuko litzaidake.

Inguruko ikastetxe gehienak Hezibiden sartuta daudela ikusi ondoren, etorkizuna elkarrekin eta ados eramateko, beraz, harrigarria da honelako gauzak ikustea.

Amaitzeko, nire buruarekin hasi eta kritika positibo bezala, arduradun eta antolatzaile guztiei bihotza buruarekin loturik erabiltzeko eskatuko nieke.

JUAN JOSE ZABARTE

Txapak direla eta

151 zenbakian agertutako kartaren aurrean, puntu hauek argitu nahi ditugu beheko sinatzaileok :

- Iñaki Muñoz Aberasturi Musakolako Batzordera kamiseten, txapen, etb.en agente komertzial bezala aurkeztu zen.

- Musakolako Batzordeak, urte honetan artikulua horiek ez zituela aterako adierazi zion.

- Beste urte batzutan, kamiseta eta txapen salmenta batzordeak bultzatua izan zen eta bere laguntzaileek diseinatua.

Saldutakoa, Musakolako jaiak finantzatzeko izan zen.

- I.M.A.-k saltzen ipinitako txapak bere etekinerako izan dira.

- Erosleek ez zuten datu hau ezagutzen, zeren eta katelek ez zuten adierazten.

- Tabernariak guk informatu egin genituen eta ez ziren inoiz mehatsatuak izan. Honen aurrean, tabernariak gurekin solidarizatu ziren eta txapen publizitatea egiteari uko egin.


- Tabernetatik batutako txapak I.A.M.ren etxera eraman ziren pertsonalki eta bere ekinaldiaren aurrean tabernataria itzuliak izan ziren.

- Gero, I. A. M.k txapak saltzeko leku bat jarri zuen Udal bahime barik, eta Komisioari gezurra esanez.

Azken adierazpen moduan, denok ezagutzen dugu txantxangorriaren eta kukuaren esaera, nola kukua txantxangorriaren lanaz aprobetxatzen den, batek lan egin eta besteak batu.


Arrasate Press-i eskerrak ematen dizkiogu gai hau argitzeagatik eta Musakolako auzotarrei San Isidroko jaiak aurrera eramateko laguntzagatik, batez ere tabernariei.

MUSAKOLAKO AUZO BATZORDEA
MUSAKOLAKO KOADRILAK
MUSAKOLAKO JAI BATZORDEA



ARAMAIO
okindegia

Maisu Guridi, 3
Tfnoa: 79 36 46



ECUADOR

Kontzeziño, 2
ARRASATE
Tfnoa: 79 14 06

Greba honek zerbaiteko balioko du?



Juan Mari Gonzalez
(Langilea)

Ez dakit zenbateraino balio duen, aginduak Madril-eko gobernuan daudenek ematen dituzte eta horiek nahi dutena egingo dutenez...




Marisa Miguel
(Langilea)

Nik uste dut baietz, jende guztiak parte hartzen duenean gobernuak erantzun egin behar du.



Pilar Garcia
(Etxekoandrea eta langilea)

Ez dut uste horrela ezer ateratzen denik, uste dut gobernu ez dela presionatuta sentitzen.



Roman Kortabarria
(Langabetua)

Errealitatean ez dut uste ezertarako balio dutenik, lehen ere orokor bat egin zen eta ez zuen ezer lortu. Hala ere, uste dut egitea merezi duela.



Jabier Uriarte
(Langilea)

Jendea kontzientziatu eta gobernuaren egitasmoei aurre egiteko balio dezakete.



Izaga Elola
(Langabetua)

Bai, balio dute, horrelako greba orokorren ondoren gobernu zerbait egitera behartuta dago.



LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAZKO DENDA.

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tfnoa: 79 27 27 / 79 13 55

BEHARREZKO TELEFONOAK

ERITETXEAK

Arrasateko Eskualde-Ospit.	79 53 00
Igualatorria	79 05 00
Santa Agedako Ospitalea	
(gizonak)	79 39 00
(emakumeak)	79 44 11
Buru osasunerako zentrua	79 90 11

GURUTZE GORRIA

Bergara	76 55 76
---------------	----------

DYA

Antzuola	76 62 91
----------------	----------

ANBULATORIOAK

Arrasate (Larrialdiak)	79 13 57
(Txanda hartzeko)	77 03 46
	77 07 21
Oñati	78 08 52
Eskoriatza	79 98 58
Aretxabaleta	79 74 58
Aramaio	(945) 45 51 16

ANBULANTZIAK

Gipuzkoako ambulanziaz	45 87 44
------------------------------	----------

UDALTAINGOA

Oñati	78 04 11
Bergara	76 14 69
Arrasate	79 14 39
Aretxabaleta	79 10 52
Eskoriatza	79 03 22

ERTZAINZA

Arrasate	79 71 99
----------------	----------

SUHILTZAILAK

Udal taldea	79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile	
burua	79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea	78 28 00

MATXURAK

Urak (udal zerbitzua)	79 09 00
Elektrizitate (iberduero)	79 05 81
Gasa	900 40 05 23
	79 78 44
	79 76 78

GARRAIOAK

Taxiak	79 12 22
P.E.S.A.	79 14 19

HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ZENTRUAK


Iturbide Egoitza	79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza	79 81 57

KONTSUMITZAILEARENTZAKO INFORMAZIOA

Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarte	79 87 77
KIUB-OMIC	79 51 55

MONTERRONGO LIBURUTEGIA

Monterron	77 01 05
-----------------	----------



29

OSTIRALA

- Zinea: Alai: "El Cadillac rosa" (7-9.30).
- San Frantzisko Xabier Ikastolaren 25. urteurrena Musakolako kiroldegian, Herri Afaria, Tapia eta Leturia trikitilariak alaituta, gaueko 9etan.
- Goardiako farmazia: Morales, San Andres.

30

LARUNBATA

- Zinea: Alai: "Hook, El Capitan Garfio" (5-7.30-10)
- Herrien Arteko Pilota Txapelketa, bueltako partiduak Iturripeko frontoian, Arrasate - Segura, goizeko 11etatik aurrera.
- Umeentzako bideo - emanaldia: "Arka galduaren bila" arratsaldeko 4.30etan Monterronen.
- I. Al-Andalus Txirindulari Txapelketa, lehen urteko kadeteentzat, arratsaldeko 4.30etatik aurrera.
- San Frantzisko Xabier Ikastolaren 25. urteurrena, Haur Jolasak goiz osoan zehar.
- San Frantzisko Xabier Ikastolaren 25. urteurrena, Musakolako kiroldegian, Arrasateko talde folklorikoan emanaldia, gaueko 10.30etan.
- Al-Andalus-en kultur astea: Flamenko kantaldia Paco Guerrerorekin eta Al-Andalus koroaren emanaldia, arratsaldeko 6.30etan.
- Goardiako farmazia: Azkoaga, Ferrerías.

31

IGANDEA

- Zinea: Alai: "Hook, El Capitan Garfio" (5-7.30-10)
- Arrasate Kirol proiektuaren azken ekintzak, herriko plazan goiz osoan zehar.
- Al-Andalus-en kultur astea: Egurdiko ordubatean omenaldia jubilatuei eta arratsaldeko 7etan "Alegria de la tierra" taldearen emanaldia.
- Goardiako farmazia: Español, Iturriotz.

1

ASTELEHENA

- Zinea: Alai: "Hook, El Capitan Garfio" (7-9.30)
- Baketze eta adiskidetze astea: Mahaingurua, "Bake bideen bila", San Vitorren arratsaldeko 7etan.
- HIESari buruzko astea: Inaugurazioa, "HIESa orokorrean" izenburuko hitzaldia eta kartel erakusketa, Monterronen arratsaldeko 6etatik aurrera.
- Goardiako farmazia: Egunez: Corcuera, Musakola. Gauez: Puy, Bergara.

2

ASTEARTEA

- Zinea: Alai: "Hook, El Capitan Garfio" (7-9.30)
- Baketze eta adiskidetze astea: Hitzaldia, "Kultura eta biolentzia", San Vitorren arratsaldeko 7etan.
- HIESari buruzko astea: "HIESa eta sexualitatea" hitzaldia, Monterronen arratsaldeko 7etan.
- Goardiako farmazia: Egunez: Irizar, Erguin. Gauez: Guallar, Bergara.

3

ASTEAZKENA

- Baketze eta adiskidetze astea: Hitzaldia, "Gure herria bake-tzeko oinarriak eta jarrerak", San Vitorren arratsaldeko 7etan.
- HIESari buruzko astea: Hitzaldia "HIESa eta marginalazioa", Monterronen arratsaldeko 7etan.
- Goardiako farmazia: Egunez: Amezua, Santamaina. Gauez: Estella, Bergara.

4

OSTEGUNA

- Baketze eta adiskidetze astea: Bakearen aldeko otoitza, parrokiaren arratsaldeko 7.30etan.
- Hitzaldia: "Gazteria: guraso - semealaben arteko erlazioa" arratsaldeko 6.30etan Almeneko aretoan.
- HIESari buruzko astea: hitzaldia "HIESaren oraina eta geroa Euskadin", Monterronen arratsaldeko 7etan.
- Goardiako farmazia: Egunez: Aurora Ruiz, Maala. Gauez: Mozos, Bergara.

Bidaiak

• Ibilaldia

31n Durango ospatuko den Ibilaldia 92 euskal jaira joateko autobusa antolatu du AEDk. Goizeko 9.30etan irtengo da Garibai geltokitik. Izena AED elkartearen, Hire liburudendan eta Iturrioz tabernan eman daiteke. Prezioa, 700 PTA.

Jaiak

• Euskal Folklore

San Frantzisko Xabier ikastolako 25. urteurreneko ekintzen barruan, bihar larunbata gaueko 10.30etan euskal folklore jaialdia ospatuko da Musakolako Kiroldegian. Partehartzaileak honako hauek izango dira: Goikobalu Abesbatza, Lore Gazteak eta Arrostitz dantza taldea eta txistulariak, Arrasateko Txalaparta taldea, Arrasateko Trikitixa eskola, Arrasateko erraldoi konpartsa, Arrasateko gaiteroak, Ikastolako abesbatza, Bergarako ikastolako dantza trikitixa bikotea, bertsolariak, Arrasate Musikaleko irakasleak eta txistulariak. Guztira ordu t'erdia iraungo du gutxigorabehera.

• Gaztetxean rock jaialdia

Gaur, gaueko 10.30etatik aurrera Gaztetxean kontzertua burutuko da. Bertan bi talde Heavi, Lord Byron gasteiztarrak eta Desconocidos Mirandakoak. Sarrera: 300 PTA.

• Haur jolasak

Bihar larunbata, hilak 30, haur jolasak izango dira, 8 urtetatik 14 urtera bitartekoentzat. Kirol kutsua izango da nagusi eta gutxi ezagunak diren beste kirol batzuk bultzatu nahi dira: Indiaka, Badminton... Bestalde, gaztelua eta ohe elastikoa ere egongo da.



HIESaren aurkako astea

1etik 7ra, hitzaldiak, jaialdiak, bertsolariak...

Astelehenetik aurrera eta ekainaren 7a arte, HIESari buruzko astea burutuko da. Inauguraketa ekitaldia arratsaldeko 6etan izango da eta bertan Alkatea eta Peio Lopez de Munain, Arabako Hies-aren aurkako Batzorde Hiritarreko presidentea izango dira. Goikobalu abesbatzak ere hartuko du parte inaugurazioan eta ondoren, arratsaldeko 7etan hitzaldia burutuko da Monterronen, baita kartelen erakusketa ere. Hitzaldiak, egunero izango dira ostiralera arte ordu eta toki berean, eta ostiralean jai giroko ekintzei emango zaie hasiera: 8etan jaialdia gaztetxean eta diapositiba emanaldia. Larunbatean, berriz, arratsaldeko 7etan eta herriko enparantzan Tunantes del Norte taldearen antzezlanak ikusgai izango da; gaueko 10etatik aurrera, Monterronen rock-jaialdia: EH Sukarra, Zakarrak eta AM-53 taldeekin. Igandean emango zaie amaiera ekintzei, eguerdian mahai jarriko da Seberon, txalaparta eta bertsolariak ere hantzen izango dira, eta ordubatak aldera giza-katea egingo da.

• Al-Andalus-eko kultur astea

Astebukaeran Al-Andalus-eko aste kulturalaren ekintzek aurrera jarraituko dute. Larunbatean goizeko 10etan txirridulari frogak egongo da, Aretxabaleta, Eskoriatza eta Arrasate zeharkatuko dituenak. 12etan ezkondu eta ezkon gabeen arteko futbol partidua egongo da. Arratsaldean, Pako Gerreroren eta abesbatzaren emanaldia izango da. Igandean jubilatuei omenaldia egingo zaie eta Pako Prieto izango dugu horretarako. Eskoriatzan "Rocio la Cenicienta" antzerkia aurkeztuko da eta jaiari amaiera

emateko, 7etan "Alegria de la tierra" taldearen emanaldia.

Hitzaldiak

• Baketze eta adiskidetze astea

Ekainaren 1etik 4ra bitartean, Arrasateko Artziprestaldeko Kristau Elkarrekin antolatuta Baketze eta adiskidetze astea burutuko da. Mahainguru batek irekiko du baketze aste hau, "Bake bideen bila" izenburupean eta bertan Senideak, Garraxi ixila eta Gernika gogoratzuz izango dira partaide, San Vitorren arratsaldeko 7etan.

Ekainaren 2an, Xabier Pikaza, Salamancako Teologia irakasleak "Kultura eta biolentzia" izenburuko hitzaldia eskainiko du, toki eta ordu berean. Azken hitzaldia hilaren 3an egingo da lehen aipatutako tokian, hizlaria Jose Antoni Pagola eta hitzaldiaren izenburua "Gure herria baketzeko oinarriak eta jarre-rak". Azkenik, astea bukatzeko bakearen aldeko otoitzaldia egingo da ekainaren 4ean, parrokiaren eta arratsaldeko 7.30etatik aurrera.

• Gazteria

Datorren ostegunean, ekainak 4, arratsaldeko 6.30etan "Gazteria: guraso eta seme-alaben arteko erlazioa" izeneko hitzaldia izango da ALMENEko aretoan. Hizlaria Blanca Martinez izango da.

Txapelketak

• 3. adineko olinpiada

Ekainaren 13an Aretxabaletako kirol-etxean Deba Garaiko 3. adineko Olinpiada ospatuko da. Deba Garaiko 60 urtetik gorakoek har dezakete parte eta izena kiroldegietan edo kultur etxean eman dezakezue. Hiru multzo desberdin izango dira eta beharrezkoa izango da kirol guztietan parte hartzea. Herri bakoitzetik autobusak izango dira Aretxabaletara. Saria denontzat izango dira eta ekintzak arratsaldeko 3etatik 7.30etara izango dira.



“ Bi parte mediko daude, bata erizain batek eskatuta egina, eta bertan jasotzen denez, Guardia Civileko teniente bat eta numero bat Kepa Urraren gelan zeuden Basurtoko eritetxean hura karrasika eta ahoa odolez beterik zegoenean”.

(Arantza Mendizabalek Kongresuko Justizia Batzordean)

“ Ordainketetarako proposatutako sistema-ekin arrisku serioa daukagula iruditzen zait, alegia, goi mailako lanpostu horiek dagoeneko kooperatibetan dagoen jendeak betetzea, karrera pertsonalen bidez, egoera koiunturaletan, eta era askotako ajuste eta egokitzeei esker lan indize altuak dituen jendeak, aparteko dohairik eta perfil profesional eta eskakizun berrietarako behar den birziklatze eta egokitzerik gabe. (...)”

Nire eritzirako, alde egitea ebitatzeko eta oso baliotsua, “ezinbestekoa” denari eusteko edo behar dugun “super-ejekutibo” hori kanpotik ekartzeko bakarrik ordain dakiokela norbaiti gehiago”.

(Moises Olalde TU-Lankide Aldizkarian)

“ Gure zentruetatik irteten duten injineru eta tekniko gehienek ez dute era kooperatiboaren oinarriko ideiarik ere. (...) Ez ote da txoiloa kooperatibetan lan egitea? Ez ote da komenigarriagoa hain eserleku egonkorra ez izatea, gure ingenioa eta erantzukizuna zorrozteko?”

(Jose Mari Sarasuak TU-Lankide aldizkarian)


Hika tratamenduak badu etorkizunik?

Hika tratamenduari ikusten diodan etorkizuna euskarari ikusten diodan bera da. Hika-rena aditzean sinplifikatzera joango dela uste dut, ez da galduko baina berkokatu bai eta euskaldun-goak daraman martxa ikusita, Hika baliabide literario gisa geldituko da. Hika hizkera arruntetik desagertuz joango da eta praktikatzea zaila izango da, bestela ere aditza nahiko zaila da eta, baina euskarak irauten badu, baliabide literario gisa indar handia hartuko du.

Herri txikietan ez da galduko euskara galtzen ez bada, baina herri txikietan euskara ere asko galdu da eta herri txikietan ez du hizkuntza batek irauten, herri handietan irauten du eta herri txikiak, lehentxoago edo berandutxoago, mimetismoz, herri handietan gertatzen dena egingo dute.

Ikastola edo euskaltegien lanak eragina izan dezake Hika tratamenduaren etorkizunean, baina Hika nahiko gai baztarrekoa edo marginala da eta hor erdian askoz ere arazo handiagoak daude, premia gehiago dutenak. Beraz, hizkuntzak indarra izango badu eta biziko bada, Hika-rik gabe biziko balitz ere ez litzateke gutxi izango eta Hika-rik gabe biziko den ere zalantzan dago, eta indartzen denean nik ez dut dudarik Hika berri-tingo egingo dela eta batez ere literaturan jarraituko du, gauza testimoniala izango da. Hizkuntzak indar handia hartuko duen edo ez? ni ez naiz profeta baina daraman martxa ez da oso baikorra.

XABIER AMURIZA,
ITZULTZAILEA



Berango



**Sukalde-altzariak,
mahaiak eta
aulkiak**

Erakusketa: Legarre pabiloia z/g, Gipuzkoa etorb. Tfnoa: 79 01 92 ARRASATE

J. M. Heriz

Konpromezurik gabeko
aurrekontuak


Olarte, 30 Tfnoa: 79 77 11. ARRASATE

**ARRASATE
PRESS**



77 05 65

Pando



**PINTURAK eta
PAPEREZTAPENAK**

Aragoi, 6-3. Esk.
ARRASATE Tfnoa: 77 00 39

Bergara

• Lanbide Hezkuntzako zentru berria

Matxiategi-Agorrosin gunean Lanbide Hezkuntzako zentru berria eraikiko da Hezkuntza Batzordeak erabaki zuenaren arabera. Bi urtetan martxan jartzea espero da. Gaur egungo eskolaren sistema berritzea da helburu nagusia, tresneria modernoa sartuz.

• Aurrekontuen onartzea

Azken plenoan 1992. urteko aurrekontuak onartu ziren, guztira 1.861 milioikoak. PNV-EE eta PSEen aldeko botu agertu zuten eta HB eta EAK kontrakoak. % 25.6a pertsonal gastuetan, % 16.3a zerbitzu eta ondasunetan eta beste % 37.7a inbertsioetan erabiliko dira.



Eskoriatza

• Eskola eguna

"Luis Eceiza" ikastetxe Publikoak eskola eguna ospatuko du datorren ekainaren 5ean. Egun honetan hainbat ekintza izango dira: goizez marrazki lehiaketa, ipuin kontaketak, bideo emanaldia, kirolak... eta arratsaldean eskolaurreko patioan gaztelu puzgarriak, jokuak eta hurrek antolatutako ekintzak izango dira.

• Alde zaharren berrikuntza

Gipuzkoako Foru Aldundiak Eskoriatzako alde zaharren berrikuntza plana onartu du. Era honetan etxeen itxura gordetzea nahi da, kultur eta gizarte mailako baloreak gordez.

Aretxabaleta

• Antzerkia

Datorren 30ean Kurtzebarri Eskolan Louviers taldearen "Tela Marinera" obra antzeztuko da. Gaueko 10etan izango da eta sarrerak 300 pezeta balioko du.

• Loramendi Literatur Lehiaketa

Aretxabaletako Udal Euskara Zerbitzuak Loramendi Literatur Lehiaketa antolatu du. 18 urtetik gorakoek har dezakete parte eta lan guztiek argitara gabeak izan beharko dute. Olerki eta ipuin sailtan hiru sari bereiztuko dira: 50.000, 25.000 eta 15.000. Ekainaren 19a baino lehen aurkeztu beharko dira lan guztiak eta uztailaren 14ean banatuko dira sariak.

ORL UNITATEA

- Entzumena
- Sudurra
- Eztarria

EKAINAREN 1etik AURRERA

Zulueta eta Estefano doktoreak

Kontsulta egunak:

- astelehena, asteartea, osteguna eta ostirala
- arratsaldetik 4etatik 8etara



Zerkaosteta, 17 etxabehea. ARRASATE Tfnoa: 79 20 18

Ahizke-Cim

91-92 urteko ikasturtean beka eskatzeko epea zabalik dago Ahizke-Cim eskolan. Sakoneko heziketa eta promozio sozialeko kurtsoetarako izango dira beka hauek. Epea ekainaren 15ean bukatzen da eta izena emateko, Idazkaritzan izango dituzue bete beharreko agiriak.

Laintz, enpresa berri bat

Eraikuntzak eraberritzen iharduteko helburuaz, Saiolanek, bi urtetako lanaren ondoren Laintz enpresa sortu du. Oraingoan, enpresa berri honen lana eraikuntzen egoerari buruzko txostenak egin, obrak zuzendu eta proiektuak aztertzeraz mugatuko da. Enpresa sortzeko pasa diren bi urteetan, Laintz-ekoek Gatzagako Udalarekin batera lan egin dute eraikuntzen eraberritzean. Orain, Aretxabaleta, Eskoriaza eta Elgetako alde zaharrei buruzko ikerketa bat egiten ari dira.

Ikastolak Buesaren aurka

Jakina denez, ikastolek Buesaren dimisioa eskatzeko urratsak ematen ari dira. Dimisioa eskatzeko lehenik ekin-tza batzuk burutu behar dira. Hori dela eta, bailadako ikastolek gaur goizeko 11etatik aurrera prentsaurrekoa eskaintzekotan ziren, dimisioa eskatzeko burutuko diren ekintzen berri eman eta ikastolen egoera erreala aurkezteko.

ONGIETORRIA JAI OBERRIE

Inmaculada Galan Romero, maiatzaren 15ean.
Ana Garcia Agredas, maiatzaren 18an.
Markel eta Aitor Juaristi Mendarozketa, 20an.

ZORIONAK EZKONBERRIE

Juan Luis Agirreurreta Agirre & M^a
Cristina Gonzalez Lasa. Maiatzaren 19an.
Zibilez.

HUETO Doktorea

**Eztarria, sudurra,
belarriak**

Ordua eskatzeko: 79 81 11
79 81 00


Olarte kalea, 43 Arrasate

Txandaka

GOSE GREBAREN ONDORIO ORGANIKOAK

Elikagai gutxiengoa baino gutxiago hartzeak desnutrizio orokorreko kuadro ezaguna sortarazten du, eta berarekin batera argaltzea, pisuaren eta gaitasun fisiko eta intelektualaren gutxitzea eta gosearen ondoriozko metabolismo aldaketa ohizkoak gertatzen dira. Berziki azpimarragarria da hipoproteinemia edo odoloko proteinen gutxitzea, kontutan izanik hori gure organismoarentzat ezinbesteko materiale plastikoa dela eta gutxitzen direnean, batez ere albumina izeneko atala gutxitzen bada, edemak eta gorputzeko atal batzuen handitzeak sortarazten dituela. "Gosearen edema" izenez ezagutzen dena, karbono hidratan (kaloriatan) pobrea den eta proteina gutxi elikaduren ondorioz gertatzen da.

Ondoren aipatuko ditugun sintomak agertzen dira, hipotentsio arteriala (tentsioaren jeitsiera), bradikardia edo pulsuaren gutxitzea, odoleko glukosa edo azukrea gutxitzea, eta horrek atrofia sortarazten du organu batzutan eta baita liseriketa aparatuek behar bezala ez funtzionatzea ere. Begien inguruan, kontuan izan begiak zuloetan sartu-sartuta geratzen direla, edema edo hazitze palpebrala da nagusi, masailak



Gabriel Elorriaga (*)

pastatsua, eta hanka, zango, esku eta besagaintan more kolorea, eta kasu larrietan sabelaldea hazita edo aszitisa. Azalak kolore grisazka zurbila ageri du, batzutan pigmentazio arrarokin gainera. Muskuluetako ahulezia handia da eta mugimenduak geldoak eta maskalak. Indarrik ezagatik erori egite dira asko eta ez dute altxa-

tzeko behar den kemenik. Etzanda eta sorgor ageri dira, abstinentziaaldi luzearen ondorioz.

Luzaroan iraun duen desnutrizioak urritze garrantzitsua ekar dezake organismoaren defentsetan eta infekzioen aurrean makalago gerarazi.

Anemia eta apatia mentala ere agertu ohi dira. Izerdi gutxi botatzen da eta beherakoa eta azalean eta mukosetan zauri atrofikoak azaltzen dira.

Guzti horri urik edan gabe egotea, egarria gehitzen bazaio, egoera ezin da 2 edo 4 egun baino gehiago luzatu, 10 egun edo gehiagoko kasuak ere deskribatu badira ere. Horren kaltea, gertatzen den deshidratazioa da, bihotza, gultzurrunak eta beste ezinbesteko organu batzuentzat dituen ondorio txarrekin.

(*)MEDIKUA, NUTRIZIOAN
ESPEZIALIZATUA.



J. Ramón Otamendi

HARATEGIA

Ferrerias, 20 · Tel. 79 62 28
ARRASATE



Manifestariak Garibaiko bidegurutzea moztu zuten minutu batzuetan.

Erabateko greba Arrasaten

Manifestaldian jende gutxi hartu zuen parte

Herenegungo greba orokorraren deialdiak arrakasta handia izan zuen Arrasaten, Eskualde Ospitala, Santa Ageda eta Mecako gasolindegiko gutxieneko zerbitzuek gain, beste inork ez zuen lanik egin eta. Gutxieneko zerbitzuei dagokienez, aipagarria da sindikatuak ez zeudela oso ados Eskualdeko Ospitalean jarritakoekin, "igandean jartzen dituztenak baino handiagoak dira eta. Gainera, lanera joatera behartutako ebentualdez osatu dituzte".

Lantegiez gain, herriko denda eta taberna guztiak itxita egon ziren egun osoz eta berrogeiren bat lagunek osatutako pikete bat kalean ibili bazen ere, ez zen erabiltzeko beharrik izan.

Eguerdiko hamabiak aldera herriko kaleetan zehar burutu zen manifestaldian 400 pertsonak hartu zuten parte gutxi gora behera. Manifestaldian, lan-

gileen eskubideen alde, industri desmantelamenduaren aurka, Ertzantzaren aurka eta amnistiaren aldeko oihuak bota ziren. Manifestaldia hasi aurretik, iraun zuen bitartean eta bukatutakoan ere, Ertzantzaren presentzia nabaria izan zen, baina ez zen istilurik gertatu.

Manifestaldia bukatu eta gero, sindikatuak arratsaldean hiriburuetan burutu behar ziren mobilizazietarako deialdia egin zuten. Balorazioa eskatzerakoan, sindikatu guztiak grebaren arrakasta azpimarratu zuten, baina manifestaldian jende gutxi ibili zela adierazi zuten, eta zentzu horretan hurrengo mobilizazioetarako lan gehiago egin beharra. Era berean, UGT sindikatuak greba egin baina mobilizazioetan parte ez hartzeko hartutako erabakia, UGTrentzat ezinbestekoa zela adierazi zuten beste sindikatuak, "bestela 28an bakarrik geldituko lirateke eta".

Usteak uste

M27 edo 27 M. "Greba" hitzak batxilerko oroitzapenak ekartzen dizkit nahi barik burura. Edo hobeto esanda, orduan izaten genituen jarrerak errepikatuta ikusi uste ditut joan den eguaztenean herritarrengan. Garai haietan irakasle eta gurasoek galdetzen zizkigutenak akordatu zaizkit: Zergatik da greba, zer argumentu daukazue, nork konbokatu du... Galdera horietan erdientzat ere ez genuen erantzunik izaten.

"Nagusien munduan", bezperatik jakiten dugu zein fabrikatan ez diren joan ere egingo, zein okindegik ez duen aterik zabaldu ere egingo, eta zenbat egunkari kaleratuko den. Greba berezia da, konforme. Baina egingo nuke oso gutxi dakiela arrazoien berri, eta deialdiarekin ados egon arren, lan barik geratzeko mehatxatuek baino ez dutela deitutako ekintzetan parte hartu.

Bitartean, eguraldi ederra, kalean gizonezko talde txoak egunkari barik eta inoiz baino jende gehiago txandalarekin. Guk sikira ostiraletan jartzen genituen grebak, disimulo gutxiarekin.

Eta egia da, bestalde. Zertan eman behar da denbora horrelako egun baten? Sindikatuen erantzuna jakinekua da. Baina jendeak errekusa egiten ei du bideo dendetatik. Hori oraindik tristeagoa da.

ARANTZAZU LOIDI

URONDO
elektrizitatea



Kataide Industrialdea 5. Pabiloia,
Tfnoak: 79 78 15 / 77 10 42 Faxes: 77 14 76 ARRASATE

- * Elektrogaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak
- * Proiektuak



SAMEGO
GARBIKETAK

Uriburu, 24
ARRASATE
Tfnoak: 79 70 39

INEM Udaletxe zaharreen

Joan den astean, jakina denez, manifestaldi baten ondoren izandako sutearen ondorioz INEMeko bulegoak itxi egin behar izan zituzten. Fiori dela eta, Udalak segituan aurkitu dio toki berria INEMi eta astelehenetik aurrera, INEMeko bulegoak Udaletxe zaharreko lokaletan egongo dira. Printzipioz, hiru hilabetetarako.

Gurutze Gorriaren irteera gehienak trafiko istripuengatik

Urteko lehen hiru hilabetetan Deba Garaiko Gurutze Gorriak guztira 73 irteera egin zituen. Irteera horietatik, 13 trafiko istripuengatik izan ziren, 4 kirol istripuengatik, 6 lan istripuengatik, 1 alkohol intoxikazio baten ondorioz, 16 premiazko lekualdaketez, 19 zerbitzu berezietarako, hiru dei faltsuen ondorioz, bi erreskate lanetarako eta beste 9 bestelako istripuen ondoren. Aipatutako epean eramandako pertsonetatik 26 arinki zaurituak gertatu ziren, 15 zauri larriekin eta 3 hil egin ziren. Hiru hilabetetan Deba Garaiko lau anbulantzien artean 2.971 kilometro egin dituzte.

Aita Mennin sikiatria mintegia

Astelehenetik asteazkenera bitartean Aita Menni Ospitalean "Psikiatriako neurketa klinikoa" izenburuko mintegia burutu zen. Mintegian estatu osoko 100 psikiatra eta psikologo baino gehiagok hartu dute parte. Mintegia arrakastatsutzat jo dute antolatzaileek.



Astean bi ordu eta astebukaeretan ordu betez, izaten dituzte kirol ekintzak.

Kirolaren bidezko heziketa

Arrasate Kirol Proiektuaren jaialdia

Arrasateko Kirol Proiektuak 1991-1992ko ikasturtea bukatzeko jaialdi bat ospatuko du igandean, 31n. Aurtengoa, proiektuaren bigarren urtea da. Ekintza fisiko eta kirolaren bidez haurren bizitza kalitatea indartzea eta hobetzea da proiektuaren helburua. Arrasateko ikastetxe guztietako haurrek hartzen dute parte, guztira haur guztien %40ak. Lau maila desberdintzen dira, adinaren arabera: 1. eta 2. mailakoentzat psikomotritzitatea, hau da, oinarrizko ariketak; 3. eta 4. mailakoentzat aurrekirola, au-

rerantzean kirol desberdinak garatzeko ezagupenak; 5. eta 6. mailakoentzat multikirola, kirol desberdinetako teknika; eta 7. eta 8. mailakoentzat lehen espezializazioa, aukeratu duen kirolean aritzea. Komite antolatzaileak zuzentzen ditu ekintza guztiak eta Udaleko Hezkuntzako ordezkaria, AUKEA, klub-ak, Gurasoen elkarteak, ikastetxeak eta ATHLONeko aholkulari teknikariak dauden koordinatuta. Igandeko jaia 3. mailatik 8. artekoentzat izango da.

FAGOR



TALDE INDUSTRIAL KOOPERATIBOA

GURE ESKUALDE ETA EUSKADIREN ZERBITZUAN

ELKARLANEAN ARITZEN DAKIEN AGERBIDEA



**Elektroinjekzio
Zerbitzua**

ARRASATE KONPONKETAK

Zaldispe kalea, 5
Tfnoa: 79 95 41
ARRASATE



Aldaiko hilerriak laster utziko dio bisitariak hartzeari

Hilerri berria urtarrilerako

Panteoien salmentarako eskaintza desberdinak

Hilerri berriaren lehen faseko lanak urtarrilean bukatuko direla eta, Udalak erabaki batzuk hartu ditu. Hilerri berria 1993ko azaroan inauguratzeko asmoa dago, hala ere urtarriletik aurrera egin behar diren ehorzketa arrunt guztiak San Kristobalen bertan egingo dira; panteoiei dagokienez, 1994. urtera arte ezin izango dira erabili. Lehen fasean, 348 panteoi, 64 nitxo, hezurtegi bat eta autopsia gela, kaperak eta bulegoak bilduko dituen eraikuntza egingo dira.

Panteoien salmenta prezioei dago-

kienez, ordaintzeko baldintza eta eskaintza desberdinak daude: 675.000 PTA ekainaren 30a baino lehenago erosiz gero, 725.000 PTA abenduaren 31a baino lehenago erosita eta 900.000 PTA datorren urtean erosiz gero. Horretaz gain, panteoia erosten dutenek ez dute tasarik ordainduko ondorengo bost urteetan.

Azkenik, aipatu hilerri berriko hiletako eskubideen gestioa Udalak eramango duela eta ez orain arte bezala inbiliariek.

□ Gaur Senideak-en kontzentrazioa

Salto del Negroko euskal presoek gose grebaren 36. eguna eta egarri grebaren 8.a bete zuten atzo ostegunez. Telebista espainiarrak jakitera eman zuenez Pedro Guridi "Pedrotxo" k gose greba utzi egin zuen, baina Senideak-eko partaideek ezin izan digute berri hori konfirmatu. Jesus Mari Zabarteren egoerari buruz, esan behar atzo oraindik bere zeldan zegoela, erizaindegira joan barik.

Gose-greba hori dela eta, aipagarriak dira azken aldian herrian egin diren mobilizazioak, batez ere pasa den ostirala eta igandekoak, bertan 2.000 pertsona inguruk hartu zuten parte eta. Gaur, berriz, Senideak-ek deituta, arratsaldeko 8etatik aurrera kontzentrazio ixila burutuko da.



□ Aiton-amonei omenaldia

Larogei urtetik gorako herritar guztiari gogora erazten zaie datorren ekainaren 2ean Udalak aitona amonei omenaldia eskainiko diela eta parte hartu nahi duten guztiak, zabalik dutela izena emateko epea. Udaletxeko Bulegoetan Nortasun Agiria ekainaren 16 baino lehen aurkeztea beharrezkoa da izena emateko.

□ Haur Dantzarien eguna

Ekainaren 21ean Haur Dantzarien eguna burutuko da. Etxean umeren bat hartu nahi duenak AED edo Hire liburudendan eman dezake izena.

SEGURTASUN-INJINERUTZA



Zure denda, lantegia, etxea, etab. **BABESTEN** ditugu **LAPURKETA** eta **SUTEEN** aurka
Legutianoko atea, 35 Tfnoak: 26 34 77 eta 26 33 44 GASTEIZ

ARRASATE PRESS



77 05 65

NAROKI

Urrezko bitxiak

NAROKI

Opariak, Jostailuak, Liburuak, Paperdegia

Erdiko kale, 23 ARRASATE Tfnoa: 79 20 47



Arrasatear batzuk iritsi dira **Eurodisney**-ra eta herritarrek ikus ditzaten, argazki hau bidali digute. Erdian dauden hiru neskak arrasatearrak dira: **Larraitz Trojaola**, **Alizia Gomez** eta **Aintzane Gardoki**. Besteak, ezkerraldeko bikotea Valentziarra da eta gainerakoak Eskola Politeknikoan ikasi eta orain Frantzian daudenak dira. Europan ere ATBko txapelak eguzkiarengandik babesteko. Gorantziak Arrasateari Frantziatik



Oñatiko Larraingain elkarteak, urterokotzat hartua duen ohiturari jarraituz, joan zen astean egin zuen urtero bertsolarien bati eskaintzen zaion **omenaldia**. Aurtengoa **Patxi Goikolea** izan da, eta maitasun adierazpen eta erregalu bikain asko jaso zuen han bildutakoengandik. Ondo merezitako omenaldia, zalantza barik. Zorionak, Patxi.

Pablo Mayor eta **Txaro Corres**, maiatzaren 1an ezkondu ziren. Ezkon bidaia Tailandia eta Balira egin zutan eta nahiz eta oraingo bueltan izan, ondo pasako zutela espero dugu. Zorionak! ▶



Epelde

BAINUJANTZITAN ESPEZIALISTAK

NEREA

Erdiko kale, 28 ARRASATE Tfnoa: 79 13 43





txutxumutxuak

Izen PROPIOAK


● **Aitor Lazpita**, 32 urte eta 77 kilo; **Jabi Sando-bal**, 19 urte eta 59 kilo eta **Agustin Horrillo**, 26 urte eta 84 kilo izan ziren pasa den ostiralean, Beti-ona gimnasioan eginiko frogetako finalistak. Bakoitzak pisu desberdina jaso zituen: 177, 152, 148 kilo hurrenez hurren.

● ASA argazki elkarteko talde berria osatu berria dugu. **Karmelo Uribarren** da lehendakaria, **Jon Ruiz de Zarate** lehendakari ordea, **Joseba Valles** materialzaina eta **Juan Luis Azkarate** bokala.

● **Bea Jimenez**, Estatu kirol eskaladako frogetan parte hartzen ari da. Bost frogetatik orain arte bi burutu dira, lehengokoan bigarren postuan geratu zen eta bigarren frogan lehena. Saillapen orokorrean lehena doa.

Anne Igartiburu,

ATBko ATBketan saioaren aurkezlea, BTTaldizkariaren azalean agertzen zaigu. Dakizuenez, batzutan modelo lanak ere egiten ditu eta hona hemen horren adibidea. ▶



◀ **Los Albertos** rock taldeak "Rockació 91" lehiaketan lehen postua eskuratu zuten pasaden urtean. Disko berria orain kaleratu da. **Iñaki Bengoa**, **Txema Arzamendi** eta **Mungiako Josek** bost abestiz osatu dute disko hau. Gainera **Los Pollos** eta **Transfusion** taldeak ere hartzen dute parte.

AZAFATA, HARREMAN PUBLIKO eta TURISMO-GIA ESKOLA



Pasajes de San Pedro, 1
GASTEIZ
Tfnoa: 945 - **28 35 34**

ARRASATE PRESS



77 05 65



ELEKTRONIKA ARTIKULUEN SALMENTA



J. Carlos Guerra, 1 Tfnoa: 79 91 64

Plus Ultra taberna

Maalako Errabala, 17
ARRASATE Tfnoa: 79 20 57



Pasa den astean Oñatiko antzerki talde batek Ikastolako areto nagusian **antzerki lan bat aurkeztu** zuten. Esan behar arrakasta handia izan zuela, umez bete beteta egon zen eta aretoa.



Jone Unanue, 29 urteko artxabaltarra eta Mito markaren ordezkaria izango da, Zaragoza eta Leon bitartean Bartzelonako Olinpiadetako antortza eramango duten korrikalarien hornitzailea.

Pasa den astebukaeran **futbol txapelketa** ospatu zen Santa Marinaran. 12 urte dira ospatzen dela eta mutilez gain nezkak ere hasi dira parte hartzen.

EDER

apaindegia

honako zerbitzu hauek eskaintzen ditugu:

- Solarium-a
- Ileenketa
- Masaia
- Manikura
- Larmintz garbiketa
- Makilaia
- Pedikura

Maalako errabala, 6 1. ezkerre
ARRASATE Tfnoa: 79 71 23



ERRENTA ETA ONDAREAREN AITORPENA

Basabe Industrialdea
ARETXABAETA
Tfnoa: 79 88 75

Biteri Etorbidea, 15
ARRASATE
Tfnoa: 79 75 99

ENARA

OSAGIRRIAK

Maalako Errabala, 21
Tfnoa: 79 62 32
20500 Arrasate



ARRASATE PRESS



77 05 65

Nosotras las putas" liburua aurkeztu berri da Arrasaten. Prostituten gaurko egoera ezagutu eta aztertzeko Kristina Garaizabal emakume feminista izan dugu, Zutik-ek gonbidauta gure artean.

— **Labur esanez, zein da liburuaren edukina?**

— 85 eta 86. urtean izandako prostituten nazioarteko mugimenduaren kongresuetan oinarritzen da "Nosotras las putas" liburua. Herrialde desberdinetako prostitutak bildu ziren bertan. Gail Phe-terson-en eskutik mugimenduaren pausu eta arazoak ezagutzen dira. Pertsonalki oso interesgarria da liburua, euren hitzak jasotzen dire-lako eta, hori ez da oso normala, ez gaude horretara ohituta. Psikologo eta mediku asko ari dira gaia aztertzen baina oraingoan euren hitzak irakurtzeko aukera dugu.

— **Beraz, liburuko artikulak ez dira oraingoak, ezta?**

— Artikuluak prostituten artean izandako debateen emaitzak dira. Bi kongresu horietan jasotako ideiak. Baina horetaz gain, feministek prostituzioari buruz atera zituzten ondorioak ere agertzen dira eta hau da nire ustez interesgarriena. Artikuluak berez aspalditik ezagutzen ziren, baina liburu honen bidez orain argitaratzen dira.

— **Gaur egun nola dago prostituten egoera?**

— Hemengo atzerriko beste herrialde batzuekin konparatuz, egoera oso desberdinak ikusten dira. Espainian "Arrisku sozialeko legea" indarrean dago da oraindik. Frankismotik datorren legea da eta prostituzioa legez kanpo uzten du. Nahiz eta praktikan ez egon, euren kotrako errepresioa gi-

Kristina Garaizabal

Prostituzioaren ikuspegi berria proposatzen



zarteko maila guztietan ezagutzen dute. Eta horrek arazo asko ekartzen dizkie, bezero aldetik batez ere. Atzerrian, herrialdez herrialde egoera desberdina ezagutzen da. Holandan prostituten egoera onartu egiten da orokorki. EE BBetan prostituzioa debekatuta dago baina gizartean duten onarpen maila ez da hain txarra. Iparraldeko herrialdetan prostitutek langile eskubideak defendatzen dituzte eta euren

burua prostituta bezala ikusten dute.

— **Feminista batek nola ikusten du prostituten egoera?**

— Lehen genuen eta gaur egun dugun ikuspuntua asko aldatu da. Lehen salatu egiten genuen prostituzioa eta lanbidez aldatzeko konbentzitzen saiatzen ginen. Eurenkin kontaktuan egon ondoren, nire ikuspuntua eta feministena ere asko aldatu da. Lanbide bezala onartu egin

dugu eta prostituitzeko eskubidearen defentsa errespetatu egiten dugu. Euren lana edozein lanbide bezala ikusten dugu eta kontutan izan behar dugu ez dutela aldatuko.

— **Orain arte askotan prostitutak objektu bezala ikusi izan dira. Gizarte mailan aldatu da egoera hori?**

— Gizarte mailan duten pisu soziala da jasaten duten arazo larriena. Prostitutak bat direla pentsatzea da larriena, talde eta sektore asko desberdintzen direlako: clubean, kalean, saunetan lan egiten dutenak... eta horietaz gain, anonimatoan gelditzen direnak: etxeoandreak, ikasleak, behartuta daudenak... Hauetatik askok prostituta izatea erabaki dute eta lanbide kontsideratzen dute gainera. Muga batzuen barruan, etxeak garbitzea eta halakoak baztertuz, prostituta lanbidea aukeratu dute. Gizarte mailan etxeak edo eskilarak garbitzen dituenak ez dago txarto ikusita, prostitutak aldiz bai eta lanbidez aldatzea ere eskatzen zaie, kontutan hartu gabe eurek aukeratu dutela lanbide hori.

— **Gaixotasunek ze mailataraino mugatzen dute euren lanbidea?**

— Komentatzen dutenez, HIESak ez du jeitsi bezero kopurua eta preserbagailua erabiltzeko eskaerak ere ez dira gehitu. Pasatu dituzten kontrolek baieztatu dutenez, prostitutak ez dira gaixotasun horren eramaile nagusiak eta bai ordea etortzen zitzaizkien bezeroak. Dena den, kontrol horien aurka daude. Osasuntsu daudela baieztatzen du txartel horrek, baina askotan ez da hala izaten, kontrola pasa eta gero, gaixotasuna hurrengo egunean beharbada har dezaketelako.

— **“Prostituten lana edozein lanbide bezala hartzen dugu”**

Eskola porrota aztergai

Gaur egun Oinarrizko Heziketa hasten duten ikasleen %50ak bakarrik lortzen du Eskola Agiria, hau da, erdik bakarrik gainditzen dute zortzigarren maila. Honetaz gain, Ziurtagiria zortzigarren mailara heltzen diren denek lortzen dute, baina ikaslea klasera joan dela bakarrik ziurtatzen du honek. Gainditzen dutenen artean, nesken kopurua handiagoa da; 10etik 7 neskek dira.

Hasieran aipatutako portzentaia horien funtsean frakaso bat ikusten da, ikaslearengan isladatzen den frakaso baina sakonean, gizartearena berarena dena, sistemaren porrota. Bere inguruak eragin handia du, herriak, familiak, lagunek, eta, baita eskolak eta irakasleek ere. Irakasleekin harremanetan izan ondoren, erreportaia honetan jaso ditugu bertan esandako eritziak.

Gizartearen inposaketa

Gizarteak jasan duen eboluzioaren eraginez ere, ikasle eredu bat inposatzen da, ikasle hori goi mailako ikasketak egitera bultzatzen duena eta finkatutako lanbide batzutura zuzentzen dena. Gizarteak lanbide konkretu batzuk eskatzen ditu: injineruak, eko-

nomilariak... *"Beharbada ez gara konturatzen profesional ona edozein lanbidetan izan daitekela, atezain bat oso ona izan daiteke bere lanean, injinerua bezain ona"*.

Gurasoen jarrera

Jarrera hori, gurasoen aldetik ere gero eta gehiago ikusten da. Askotan bere nahiaren kontra, karrera


bat egitera bultzatzen da semea edo alaba. Eta hortxe dago frakasoaren arrazoi handiena, behartze horretan. Baina arazoa sustraitik hartzen badugu, txikitatik eza gutzen dira umearen gaitasunak eta posibilitateak. Oinarrizko Heziketaren sisteman, irakasleek laguntza eskatzen dute gurasoen aldetik. Eskolako lanetan laguntzea oso inportantea da eta, nahiz eta gauza batzutan ezinezkoa izan, baina nahikoa da 10-15 minututan irakurtzen laguntzea edo berari irakurtzen entzutea. *"Umeak interesa ikusi behar du bere gurasoen aldetik, horrek asko animatzen du eta"*. Motibazio hori beharrezkoa da umearentzat. Ikastetxearen aldetik, kontaktuak aldian behin izaten dira, jarraipen hori lortu nahiean, *"Askotan guraso batzuri bi alditan deitzea tokatzen zaigu. Ez dutela denborarik esaten digute, baina umearentzat denborarik ez badute..."*.

Zerbitzu falta

Ikastetxe publiko eta pribatuaren arteko konpa-



Arazoaren aurrean, Lanbide Hastapeneko tailerraK beste irtenbide bat izaten dira.



Eskola porrotaren arrazio nagusia motibazio falta izaten da.

raketa egiteko orduan, bakoitzaren zerbitzuak izan behar ditugu kontutan. Privatuetan zerbitzu guztiak betetzen dira, publikoetan aldiz, beste ikastetxe batzuekin konpartitzen dituzte. "Dauden zerbitzuak itxurak gordetzeko izaten dira, urtearen hasieran psikologo bat eskatu genuen, ia bukatu da ikasurtea eta oraindik ez zaigu etorri". 20 ikastetxek psikologo bat badute, ezinezkoa zaio ume guztien arazoak jarraitzea larregi dituelako. Batzuk berez ikasten dute, laguntzarik gabe baina beste batzuk laguntza beharrezkoa izaten dute. Irakasle batek bere ardura-pean 20-25 ume baditu, ezinezkoa da guztien arazoak atenditzea. "Azken finean irakasleak gara bakarrik eta ez sikologoak".

Sistemak onera

Ikasketa sistema asko aldatu da urteekin eta badirudi gaur egungo sistema nahiko ona dela, teoriarik behintzat. Orokorki eta teo-

rian ume bakoitzarentzat egokitu beharko da sistema hori, bakoitzaren arabera programa indibidualak landu beharko dira. Errealitatean, gehienetan ez dira ematen. Irakasle aldetik prestakuntza

falta ere nabaritzen da askotan, "Sistema berriak praktikan jartzeko zela hasi behar dugun ez dakigu, teoriarik bai baina praktikan ez dakigu nondik hasi. Zati inportantea falta zaigu"

Lanbide Hastapena

Deba Garaiko Udal Elkarte eta Arrasateko Udalaren artean, Lanbide Hastapenaren proiektua jarri zen martxan aurtengo urtarrilean. Oinarrizko Heziketan arazoak izan dituztenak eta beste irtenbide bat topatu nahi dutenak hurbiltzen dira zentru honetara. Sartzeko, beharrezkoa da 17 urte izatea. Gaur egun 83 ikasleek ikasten dute bertan, gehienak mutilak. Ikasketa teorikoak lantzeaz gain, praktikoek dute garrantzi handiena. "Gehienak nahiko frustratuta etortzen dira, ikasteko gogo barik, eta horregatik klase gehienak praktikoak izaten dira". Aukeratzeko, sukaldaritza, aroztegia, plastika eta tailer elektronikoak izaten dituzte. Lantzen diren gaiak interesaren arabera aukeratzen dira: sexualitatea, lan-eskaerak... Gainera irteerak asko lantzen dira, beste esperientzia batzuk ezagutzeko. Hortik irtetzen diren ikasleek Lantegi Eskolan sartzeko aukera izaten dute, baina oso gutxi. Familiaren egoera kontutan hartuz, INEMek toki desberdinetan sartzeko dituzte. Gazteak kalean ez geratzea da zentroaren helburua eta era berean, ofizio bat, lanbide bat ikastea.

**Basabe
jatetxea**

**Menu eta afariak
Boda eta banketeak**

Industrialdea
ARETXABALETA
Tfnoak: 79 91 84
77 07 94

Altzariak
Diseinua
Apainketa
**M
ARENAZA**

Bizkaia, 1 ARETXABALETA Tfnoa: 79 08 07



Joan den asteburuan Segurakoek pasada ederra eman zieten Arrasateko pilotariei

Arrasate ia kanpoan Herrien Arteko Txapelketan

Orioren aurka jokatu lako kanporaketan gertatu zen antzerakorik gertatzen ez bada, Arrasateko pilotariek agur esango diote aurtengoz Herrien arteko Pilota Txapelketari. Izan ere, joan den asteburuan Seguraren aurkako partiduak jokatu ziren

eta hirurak segurarren aldekoak izan ziren: infantiletan 18 - 13, jubeniletan 22 - 6, eta nagusietan 22 - 16. Buelako partiduak bihar larunbatez jokatu dira, goizeko 11etan Iturripen. Gogora daitekeen, arrasatearrak kanporaketa honetara iristeko, au-

rraz Orioren aurka jokatu zuten eta galdu egin bazuten ere, oriotarrekin getariar batek jokatu zuela eta federazioak kanporaketa Arrasateren aldekoa zela erabaki zuen. Dena dela, badirudi Arrasateko pilotariei aurtengoz oporrak laster iritsiko zaiela.




Eskubaloi taldea Gipuzkoako finalean

Arrasate Kirolak eskubaloi taldeak bihar larunbatez jokatu du Gipuzkoako Federazioaren Txapelketaren finala, arratsaldeko 5etatik aurrera eta Errenteriako Oarso taldearen aurka. Partida Beasaingo kiroldegian jokatu da, eta gogoratu behar da arrasatearrak partidu bakar bat galdu barik iritsi direla final honetara.

Hurrengo partidua

Dagoeneko amaitu da, eta denboraldian gauzak nola joan diren ikusi ondoren, batek baino gehiagok esango zuen "Bake Santua!". Urruti gelditu dira aurrendenboraldiko helburuak, taldea fitxaketen bidez sendotu eta lau lehenengotan sartzekoak. Urruti gelditu dira, lehen ihardunaldietako martxak sortarazi zituen ametsak ere, Mondra sailkapeneko punta puntan zegoenekoak.



Tartean, makina bat lesio, joko ona eta txarra, entrenatzaile aldaketa, arbitroen erabaki zuzen eta okerrak, jokalarien moralaren beherakada, zaletuen poz eta haserreak, zuzendaritzan azken orduan eta ezinbestean bete ahal izan den hutsunea... eta sailkapenean isladatu den errealtate gordin. Hau da: mailaz ez jaistea justu justu lortu duen talde baten errealtatea.

Denboraldiak gauza on gutxi izan ditu Mondrarentzat, beraz, ahaztea onena. Datorren denboraldia hasteko oraindik denbora asko falta da, baina horrek ere badu bere morbotxoa: zuzendaritza berriarekin gauzak hobeto joango dira? Ikusi egin behar. Ordura arte, eskerrikasko zuzendaritza ohiari egindako lanagatik, ongietorria berriari eta agur bero bat Mondraren jarraitzaile guztioi.

Kabia altzariak

Gipuzkoako Etorbidea, 28 ARRASATE Tfnoa: 79 27 70



UXARTE

Kafetegia, gozotegia

Gauzez irekita!!

JO TA KE!!

Bañez doktorea, 12

Tfnoa: 79 07 63 ARRASATE

PODIUMA

BEA

JIMENEZ

Pozik hormetatik zintzilik

Beatriz Jimenez lehen ere atera izan da Arrasate Press-eko Podiumean. Urtero, udara hurbiltzen hasten denean kirol eskaladako proben garaia iristen da eta arrasatear hau bikain mugitzen da zutikako hormetan gora. "Estatuko Eskalada Txapelketan parte hartzen ari naiz eta momentuz, lehen postuan nago. Aipatutako Txapelketaren bi proba burutu dira, bata Oviedon eta bestea Alicanteko Ibi hirian; Oviedon bigarren gelditu nintzen eta Ibin, berriz, lehenengo. Txapelketari bukaera emateko hiru proba falta dira, Donostia, Bartzelona eta A Coruña, eta zaila izango bada ere, lehen postuari eutsi nahi nioke. Dena dela, ez dut bat ere erraztasunik izango, Ana Ibañez kataluniarra sailkapenean oso gertu daukat. Berak, eskalatzaile profesionala denez, hainbat eta lasterren berreskuratu nahiko du sailkapeneko lehen postua".

Beatriz Jimenez-en arerioa, Ana Ibañez kataluniarra, profesionala da eta Beatriz ez, profesional izateko asko falta ez bazaio ere. Izan ere, zaletasunez egiten den kirola izateko, Beatriz-ek ordu asko eskaintzen dizkio. "Astean lau egunetan egiten di-

tut entrenamenduak: korrika, gimnasia eta rokodromoa batez ere. Asteburuan berriz, eskalada egitera joaten naiz".

Gozamenaz hitz egiten du Beatrizek, hormetan zintzilik egotea hainbat jenderentzat gozamena da eta. "Eskaladan hasi eta lehen horma igo nuenan beldurra eta poza sentitu nituen, horregatik jarraitzen dut honetan. Etxean ere, erotuta nengoela esaten zidaten eskaladan hasi nintzenean, istripuren baten ondorioz hilko nintzela; orain, berriz, konturatu dira oso kirol segurua dela. Gainera, maila onean nabilenez asko animatzen naute".

Maila onean dabil Beatriz Jimenez, estatu osoko emakume eskalatzaileen sailkapenean zazpi onenen artean dago eta: "Ana Ibañez izango da onena, gero bost edo sei eskalatzaileez osatutako multzoa gaude atzetik eta gainontze-koak ez dira iristen gure mailara".



◆ Finala urrutirago

Mondrako neskek areriorik okerraren aurka galdu zuten partidua, sailkapenean parean zegoen Anaitasunaren aurka, 0 eta 3. Kopa txapelketari bukaera emateko partidu bakar bat falta da eta emaitza horren ondorioz, arrasatearrek orain oso zaila dute finalerako sailkatzea. Dena den ez da esperantzarik galdu behar eta asteburu honetan Aretxabaletako taldeari irabaziz gero, eta Anaitasunak berdindu edo galduz gero arrasatearrak sailkatuko lirakeke.

◆ Besaideren mendi-irteera

Datorren asterako, ekainak 7, Besaide Mendizale Elkarteak Agera eta Balmasedaren arteko mendi-irteera antolatu du. Besaiderekin joan nahi duten guztiek, ekainaren 1ean, 2an eta 3an izango dute izena emateko aukera arrasaldeko 7etatik 8etara Besaideko egoitzan.

◆ Txirrindulariek ia berriz irabazi

Dorletako Ama taldeko txirrindulari jubenilek ezin izan zuten aurreko astean Eibarren egindako lasterketa errepikatu, garaipenetatik oso gertu ibili baziren ere. Irteeran 131 txirrindulari, helmugan, berriz, 55 besterik ez. Berrogeitamalau kilometrotako lasterketaren ondoren, arrasatearren sailkapena honako hau: Iker Zugasti 2. , Zigor Urain 12. , Ruben Cabero 15. , Felix Zugasti 25. , Josemi Elizburu 26. , Antonio Prol 30. eta Aritz Altube 32.

Larunbatean kadeteentzako I. Al Andalus proba burutuko da, 4.30etatik aurrera. Ibilbidea: Arrasate, Eskoriatza, Oñati, Eskoriatza, Arrasate.

◆ Mondrak entrenatzaile berria

Datorren denboraldian Divino Zeziagak zuzenduko du Mondra. Lehen ere entrenatu zuen taldea.



"EDERTU"
ileapaindegia



San Andres auzoa. 79 04 28

Gabriel Elorriaga Dka.

Loditasuna • Zelulitia
Zelulopolisiaren
tratamendua

Santa Kruz, 24-1ª (1ª C eskailera)
ARETXABALETA Tfnoa: 79 13 54

Ikastola eta euskalduntze prozesua

Sarrera gisa

1975. urtean eskola euskalduntzeko epe luzerako gestio-plana (5 urtetarakoa) elaboratu zuen Hezibidek Leintz Bailararako, San Fko. Ikastolak bul-tzatuta eta gainontzeko ikaste-txeen laguntzarekin: hain zuen, Umezaintza, San Biator, Almen eta Mertzedariena. Azken hau, azken momentuan, ez zen plangintzan sartu.

Sakoneko eta indarrezko ideiak, asmoak eta helburuak zeuden, ez beste askorik. Gaur egun, orduko asmoak eta helburuak, ez bakarrik lortu, bai-zik eta gainditu ere egin dire-nean, erraza dirudi, baina ez zen horrela izan.

Plana honela hasten da:

"Bere kondairan zehar Euskal Herriak kultur tradizio berezia izan du. Horrek eman

dio gure herriari batasuna eta horrek bereizten du batipat besteengandik, bide batez mundu guztiko kultur ondusunen altxorra aberasten du-erarik".

"Ikastolak herriaren, eta ez maila ofizialen, ahaleginari esker jaio dira, gure kulturari jarraipena eman nahirik..."

Planaren muina

Helburuak planifikatze-rakoan kontutan eduki behar da zeintzuk ziren garai hartako egoera eta baldintzak. Txoste-nean azaltzen den eran: ez ze-goien ez maixu titulodunik, ez gelarik, ez euskarazko liburu-rik, ez eta, noski, dirurik. Planean aztertu eta planifikatu egiten dira.

1975-76 ikasturtean, Arra-sateko 500 bat ikasletatik S.

Fko. Xabier Ikastolako 28k bakarrik ziharduten EGBko 6. mailan, euskaraz irakasten %5,6 hain zuzen. Lehenengo mailan, berriz, 135ek, %27 zi-relarik. Almen-eko euskaldun-tze prozesua urte bete atzerago zihoan, gainontzeko ikaste-txeak hasi gabe aurkitzen ziren bitartean.

Plan ak urrats kuantitatibo garrantzitsua proposatzen du eta horretarako beste ikaste-txeen laguntza edo eta kolabo-razioa planteatzen du. Asmo asko, eta baliabide gutxi.

Lehenengo urratsa da: 1974 - 75 ikasturterako, hiru urteko Leintz bailarako haurren er-diak euskaraz ikastea izango da helburua eta 1979 -80 ikastur-terako %75ak.

OHO mailan lehenengo ur-tean, 1975 - 76. go ikasturtean

%27 izatetik %65 izatera pasa-tzea da asmoa. Eta 8. mailan, hutsa izatetik, %25 izatera. Er-dal giroa erabat menperatzaile zenez gero, ez zen erraza aipa-turiko helburua lortzea. Kontu-tan izanda euskaldunek gehia-go joko zutela ikastolaruntz eta soziolinguistikako ikuspegitik begiratuta portzentai hauek planteatu ziren: %65 euskaldu-nen presentzia eta %35 erdal-dunena.

Ez dut helburu hau lortzeko planifikatu ziren baliabiderik aipatuko, bat ezik: finantziabi-dearen bilakaera honela azalt-zen da: lehenengo urtetik bost-garrenera 3,2 aldiz gehitzen da presupuestoa, eta azkenengo urtean, Estatuak jartzen duena ez da %12ra iristen.

FELIX ORMAETXEA
HEZIBIDE

Erabilitako etxebizitza erosteko laguntza ofizialak

Etxea erosteko laguntza ofizialen artean, erabilitako etxebizitza erostera zuzendutako laguntzak azpimarra daitezke, duten garrantzia kontutan izanda. Izan ere, 5 milioi pezeta edo gehiagokoak izan daitezken laguntza hauek, baliapide gutxieneko gizarte taldeetara zuzenduta daudenak, jenderik gehienak ez ditu ezagutzen, interes sozial argia daukaten arren.

Laguntza hauen barruan itzuli beharrik gabeko dirulaguntzak eta mailegu subentzionatua daude.

Dirulaguntzak ematerakoan kontutan hartzen diren faktoreak honako hauek dira:

- Famili unitatea zenbaterik osatzen duten.
- Famili unitatean diru sarrerak zenbaterik dituzten.
- 1990 urteko sarrera gordinak.

Etxebizitzaren prezioak ezin ditu kopuru jakin batzuk gainditu.

Ondorengo taulak 3 lagunek osatutako familia batentzako laguntzen ideia bat ematen du, 1990ean sarrerak kide batek bakarrik izan baditu, eta 2.420.000 PTAtik beherakoak izan badira, eta aurrez etxebizitzaren jabe izan ez badira.

Etxebizitzaren azalera	Dirulaguntza	Kreditu subentzionatua	Hileko aurrezkitza	15 urteko aurrezkitza
60 m ²	537.000 PTA	4,8 M PTA	21.000 PTA	4,3 M PTA
70 m ²	670.000 PTA	6 M PTA	26.200 PTA	5,3 M PTA
90 m ²	730.000 PTA	6,5 M PTA	29.000 PTA	5,8 M PTA

Horri, Ondare Eskualdaketen gaineko Zergako exentzioa gehitzen badiogu, 360.000 eta 450.000 PTA inguruko aurrezpena atera daiteke. Guztira, beraz, 4,7 eta 6,3 milioitako aurrezpenaren aurrean egon gaitzke. Esperientziaz, eta 30 milioi pezetatik gorako dirulaguntzak jaso ondoren, laguntza horiek eskatzea gomendatuko genuke, izan ere laguntza horiek hor daude, eta batzutan kostata iristen badira ere, beti iristen dira.

Atseginez emango dizugu informazio gehiago DEBA GARAIAren edozein bulegotan.

Jesus Maria Markaide
Higiezinen Jabetzako agentea
Enpresa Zientzietan Lizenziatua
Kontu-Azterlari Zinegina



DEBA
GARAIA

INMOBILIARIA


Iturriotz, 23 etxabea ARRASATE
Tfnoa: 77 13 02

Errekaren bio-adierazleak

Udalako Ingurugiro Eskolan lantzen dugun ariketa bat honako hau da: gure inguruko erreken egoera ekologikoa nolakoa den ezagutzea. Horretarako, errekek izan behar dituen ezaugarri batzuk aztertzen ditugu, besteak beste, bere tenperatura, zer nolako abiadura daraman, eta bere inguruan bizi den landaretza eta aberetza. Ezaugarri hauek aztertuz, mediku batek egingo luke bezala, erreken diagnostiko bat ateratzen dugu.

Edozein errekataratu hurbiltzen bagara, ur

barruan dauden arroka, lurustel eta landareen artean, animalitxo berezi batzuk igarotzen dute bere bizitzako zati inportante bat. Animalitxo hauek, behar beharrezkoa dute uretan disolbaturik dagoen oxigenoa. Animalitxo hauen prezentiataz baliatzen gara, erreken kutsadura neurtzeko, gero eta kutxatuagoa izanda oxigenoaren kantitatea gutxitu egiten bait da. Animalia bakoitzak oxigenoarekiko duen beharrak adierazten digu zelako kutsadura maila dagoen, **kutsaduraren bio-adierazle** izena jasotzen



dutelarik.

Hauetariko batzuk oso oxigeno gutxi behar izaten dute, beraz, ur kutsatuetan agertuko zaizkigu. Beste batzuk, aldiz, oxigeno kantitate ugari behar izaten


dute, beraz, ur garbietan agertuko dira.

Alboko fitxa horietan dituzuen animalitxoak ur garbietan bakarrik garatzen dira. Ia aurkitzen dituzuen gure inguruko erreketan!!!


Errekaren kutsadura

Ondean aurkezten dizkizuegun bi eskema hauen bitartez, erreken jokaera naturala eta gizakiok sortutako jokaeraren eraginak gonbara ditzakegu. Eskema bakoitzaren azpian duzuen testoaz baliatu, eskema bera irakurtzeko.

Eskema hauek gonbaratuz gero, gizakion eragina uraren zikloko fase desberdinetan agerian dago. Gizarte honen barruan murgiltzen garen guztiok inplikaturik gaude. Beraz, gure eskuetan dago hain preziatua den elementu honen babeserako neurriak hartzeko aukera.



Errekek garraiatzen dituzten materialeak, jatorri desberdinak dituzte: (1),(2),(3), Lurrean aurkitzen diren era desberdinetako arroken aldaketa eta erosioetatik sortutakoak. (4),(5),(6),(7), Itxaso, lur eta sumendietatik airera pasatzen diren partikulak. (8) Lur naturaleetatik garraiatzen direnak. Materiale hauek, behin sare hidrografikoan sarturik, elkartrukatzeko prozesu kimiko nahiz biologikoak betetzen dituzte: (10) erribera basoetan. (11) inguru urtsuetan. (12) atmosferarekin. (13) barne-egituraren arabera. (14) itxas-adarretan




Gaurengoko erreken dinamika naturala asko aldatu da, batez ere gizakiok sortutako ekintzengaitik. Honako hauek azpimarra dezakegu:


(1) Deforestazioa. (2) Erosioa. (3) Aintzireen eraiketak. (4) Kanalizazioak. (5) Leku urtsuen desagerketak. Ohizko nekazaritza (6) eta erabilitako uraren banakako tratamendua (7) inpaktu txikia dute, nekazaritza industrial (9) eta ureztapen zabalekin (8) gonbaratzen badugu. Bestalde, ur hondakinak, depuraturik edo gabe, zuzenki sare hidrografikora isurtzen dira, industria (10), hiri (14), mehategi (16) eta zentral nuklearretatik (18).

San Juan Jaiak 1992ko kartel lehiaketa

Aurtengo San Juan Jaiak iragarri behar duen kartela aukeratzeko lehiaketa hogeitamarren bat pertonek hartu zuten parte, gehienak umeak. Parte hartzaile guztien lanak hemen erakustea ez da posible, beraz aukeraketa egin behar.



Jean Martin Oyagarai. IRABAZLEA




Feli Etxeberria



Aloña Altuna



Felix Piron




Goio Arana



Urko Bedia



Nekane Gomez



Ana Maria Perez



Leire Zenigaonandia

SLIMNING EMAKUMEEN GIMNASIOA

ESKAITZA:

Gimnasia aktiboa/ Ikastaroak: aerobic-a, jazz-eko lehen urratsak, dantzako lehen urratsak, diskoa, erritmoa, gimnasia pasiboa eta masaia.

**Irakaskuntzako kalitatea eta kalitate profesionala
Arreta pertsonalizatua.**

Deitu arratsaldez 77 01 87 tfnora. ERGUIN 3 etxabea. ARRASATE

Jean Martin Oyhagarai

San Juan Jaiak 1992ko kartel lehiaketaren irabazlea



Gurutze Galbete



Jon Balzategi



Gorka Navajo

Iparraldeko 26 urteko gazte honek irabazi du aurtengo San Juanetako kartel lehiaketa. Eskola Politeknikoan elektronika ikasi ondoren, azken hiru urteotan Oñatin dihardu lanean eta Arrasaten bizi da.

— Aurretik lehiaketa askotara aurkeztu zara?

— Ez, lehenbiziko aldia izan da eta niretzat sorpresa handia izan da irabaztea ere, oraindik ez dut sinisten.

— Eta zela aurkeztu zara?

— Nire lanean bidai asko izaten dut, Espainian eta atzerrian ere bai eta bidaiak bakoitzean denbora pasatzeko marrazkiak eta holako gauzak egiten ditut. Baina lehiaketa honetara aurkezteko batez ere nire lagunek animatu naute eta beraiei zor diet saria.

— Kartel hau egiteko orduan zertan oinarritu zara?

— Batez ere Arrasaten. Kuadrilakoek eta beste lagun batzuk ideia bat eman zidaten eta hortik aurrera nik garatu dut kartelaren egitura eta hori egiteko teknika. Aurkeztutakoa egin baino lehen,



bozeto antzeko bat egin nuen froga bezala eta hortik atera nuen behin betikoa.

— Arrasaterekin identifikatzen den zerbait jarri diozu, zergatik?

— Arrasaten gauza adierazgarri batzuk daude: dragoia, portaloia, udaletxea eta Monterron. Hortik dragoia aukeratu dut, beharbada gehien gustatzen zaidana delako. Santa

Barbarara joan eta aurrean jarrita marraztu egin nuen, gero kartelean sartzeko. Baina bai, uste dut inportantea dela Arrasaterekin identifikatzen den zerbait jartzea. Horretaz gain, ikurrina ere jarri dut, ez bandera bera, koloreak baizik.

— Kartela egiteko ze teknika erabili duzu?

— Konposizioa. Hau da, argazkiak, fotokopiak, marrazkiak eta abar euki ondoren, pegatu egin ditut, gustoaren arabera. Niretzat teknika hau marraztea baino askoz errazagoa da. Konposizioa nola egin nahi dudun pentsatu eta frogak egiten hasia bakarrik geratzen da.

— Badaukazu beste lehiaketa batzutara aurkezteko asmorik?

— Ez, momentuz ez behintzat. Oraingoa frogatzeko izan da, banuen gogoia antzeko zerbait egiteko eta azkenean lehiaketa honetara aurkeztu nintzen. Ez dakit, beharbada datorren urtean berriz aurkeztuko naiz. Orduan ikusi behar. Momentuz hobby bezala hartzen dut eta etorkizunean ikusi egin behar.

“Oso inportantea da Arrasaterekin identifikatzen den zerbait jartzea”

ITSASKI
arrandegia
Arrain freskoa
eta jaki izoztuak

Urbe Auzoa
Arrasate 79 98 94

ITURRIOTZ taberna
GIRORIK
JATORRENA !!

Tfnoa:79 16 04



Aste gazte

Telebistan gazteak sarritan agertzen badira ere, gehienetan ez zaie beren buruei buruz hitz egiten uzten. Erakutsiak izaten dira, pertsona nagusiek beraiei buruz hitz egiten duten bitartean.

Cecilia V. Feilitzen



moa, ... Belagoan, Guaran, Ainsan, Linza Haranean, ...
Preziak: 10.000-18.000 PTA bitartekoak. Izena emateko epea ekainaren 15ean zabal-tzen da.

musika ikasketak sakontze-ko bekak, estatu espainolean nahiz atzerrian. Dirulagun-tza: 100.000 PTA. Epea: ekainak 30.

Arloak: arte plastikoen espa-rruko guztiak (pintura, es-kultura, obra grafikoa, argazkigintza, e.a.) Sariak: 1.500.000, 1.000.000 eta 500.000 PTA. Epea: ekaina-ren 4era arte.

Bidaiak

• Gipuzkoako Diputazio-ak 15-17 eta 18-29 urte bi-tarteko gazteentzako udako ekintza programa zabal bat prestatu du. 6 egunetako egonaldiak, kirola eta natu-raz gozatzeko aukera ezin-hobea: ibilaldiak, espeleolo-gia, itsas-iharduerak, moun-tain-bike, rafting, piraguis-

Lana

• Oiartzungo Udalak: li-buruzain lanpostu bat (Titu-lazioa: lizentziatua. Euska-rra, 4. hizkuntz eskakizuna), hezitzaile lanpostu 2 (ma-gisteritza, aurrekolan es-pezializatua). Epea: ekainak 2.

Bekak

• 1992-93 ikasturtean

Ikastaroak

• Haurrentzako musika pedagogia. Uztailak 7-17, Urnietan. Diputazioak anto-latua. Matrikula-prezioa: 10.000. Izena emateko epea: ekainak 12.

Lehiaketak

• Artista Berrien XXXIV. Lehiaketa, 18-30 urte bitar-teko gipuzkoarrei zuzendua.

HHI - EPA

• Helduen Heziketa Iraunkorra Zentruan datorren urterako matrikula-epea za-balik dago ekainaren 19ra arte.

Informazio gehiago:

Gazte Zerbitzua,
77 00 65

BULARREKO PATOLOGI UNITATEA

Mamografia

Gune susmagarriak aurkitzea.

Gune susmagarrien ikuspegi zabalagoak.

Bularreko ekografiak.

Bularreko tumoreen zitologia.

Arrasaten bertan, kanpora joan beharrik gabe, egin ditzakezu bularreko gaitz guztien diagnostiko klinikoak, erradiologikoak, ekografikoak, termografikoak, zitologikoak, laborategikoak, etab.

GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA



DK.ak: CRISTOBAL, ESTOMBA, GOMEZ, MURGIENDO, OTALORA, RUIZ.

Zerkaosteta, 17 etxabeha. ARRASATE Tfnoa: 79 20 18

ETXEBIZITZAK

- Ekainetik aurrera, ekaina barne, logela bat dugu alokagai ikasle etxebizitza baten. Interesatuek dei egin asteburuetan 94 - 630 85 40. Oso merkea.
- Neska batek etxea behar du edo konpartitzeko logel alokairuan Arrasate. Dei egin 79 31 00, 127 luzapenera. Maite.
- Etxebizitza salgai. Sukalde-jangela jantzia, 3 logela bere armairuekin, egongela, komuna eta 2 terraza. Argitsua, eta bista ederrekoa. Prezio onean. Tfnoa: 79 93 42.
- Etxebizitza alokatu nahi dugu Arrasaten. Merke eta ona. Tfnoa: 79 21 09 Aitor.
- Laredon apartamentua alokatzen da uztaillean. Hondartza ondoan dago. Tfnoa: 79 52 80.
- Uribe auzoan lokala alokagai. Dei egin goizez 79 84 37 tfnora.
- Etxea salgai. Terraza, garajea eta ganbara ditu. Tfnoak: 79 23 58 eta 77 00 91.
- Salouko Pinedan apartamentua alokatzen da prezio onean. Tfnoa: 79 45 74.
- Bi oheko logela alokagai. Tfnoa: 79 07 73.

LANA

- Neska lizentziatu berriak klase partikularrak emango lituzke. Euskara eta ingelesekoak. Tfnoa: 79 04 07.
- Marrazketako klase partikularrak behar dira F1 mailakoa (erdaraz). Tfnoa: 79 24 33. Ander.
- Marrazketa diedrikoko klase partikularrak hartuko nituzke. Tfnoa: 79 79 04.
- Marrazketa linealeko klaseak emateko norbait behar dut. Tfnoa: 79 72 47.

- Emakume euskalduna umeak zaindu, etxeko lanak egin eta pertsona nagusiak zaintzeko prest. Tfnoa: 79 07 73.
- Pertsona nagusia zaintzeko andra euskalduna behar da Aretxabaletan. Dei egin 10etatik 12etara 79 55 02 tfnora.
- Frantsesezko klase partikularrak behar dira. Dei egin 8,30etatik aurrera 79 09 24 tfnora.
- Neska euskalduna umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko gertu. Tfnoa: 79 15 56.
- Hiru pertsonari gitarra erakusteko norbait behar dugu uztaillean. Tfnoa: 79 84 81. Rebeka.
- Emakumea etxeko lanak egin, eskailerak garbitu edo umeak edo nagusiak zaintzeko gertu. Dei egin goizeko 9.30etatik aurrera 77 04 60 tfnora. Margarita.
- Ilea ileapaindegian lan egiteko ofiziala behar da. Tfnoa: 79 87 62.

SALEROSKETAK

- Judoan edota karatean afizionatua bazara eta jantzia Kapemi (3) markakoa behar baduzu, dei bizkor 79 66 38 tfnora, gaueko 8.15tik 8.30etara maiatzaren 30a aurretik.
- Sanglas motorra egoera onean salgai, Yamaha 400 motorrarekin. Prezioa 100.000 PTA. Tfnoa: 77 04 48.
- Egurrezko Ferreki markako 24.000 kaloriako berogailua salgai. Tfnoa: 78 10 41.
- Bi gela bikoitzeko kanping-denda salgai egoera onean. Abanze handiz, pasilo eta guzti. Prezio onean. Dei egin 8etatik 10etara 79 56 06 tfnora.
- Allure modeloko Alpen Kreuzer karro-denda salgai. Gutxitan erabilitakoa. Tfnoa: 79 80 85.
- Trikitixa soinua erosi nahi dut. Merke bada, hobeto. Tfnoa: 79 12 00. Agurne.

- Salbatlabea, arko izozgailua eta izozkien bitrina salgai. Tfnoak: 79 23 58 eta 77 00 91.
- DENON markako bi moduloko anplifikadorea eta 2x200 W irteera analogiko eta digitalak salgai. Dena oso prezio onean. Ez galdu aukera!! Tfnoa: 79 47 90. Javi.
- Renault 4 zuri eder bat salgai. Egoera onean dago eta gainera merke. Dei egin 94 - 475 33 86 tfnora. Ikusi, asteburutan ikus dezakezu. Aprobetxatu!
- Honda PX-R salgai. 56.000 PTA tan. Irailera arte badu segurua. Tfnoa: 79 26 16.
- Erabili gabeko erantzule automatikoa salgai. Prezio ona. Tfnoa: 77 03 69.
- McKinley markako kanping-denda familiarra salgai. Tfnoa: 79 45 39. Edurnegatik galdetu.

DENETARIK

- Motxila gris bat galdu da. Aurkitu duenak dei egin dezala 79 07 18 tfnora.
- Ezkontzako urrezko eraztuna aurkitu dut. Zurea bada dei egin 79 83 43 tfnora.
- Duela bi aste perladun urrezko belarritakoak galdu nituen. Topatu badituzu dei egin gaueko 10etan 79 21 03 tfnora.
- Giltza batzuk galdu dira Bedoñako bidegurutzean. 6-7 giltza bi ilaberorekin, bata Kilometrotakoa eta bestea botilak zabaltzekoa. Tfnoa: 79 15 96.
- Larunbata 23an Eskoriatzatik Arrasatera auto-stopetan etortzean kiroletarako erropak autoan utzi zenituen mutiko horri: Etorri bila Arrasate Pressera.
- Joan den maiatzaren 26an Arrasateko Rosssi abeslari eta aktorea famatuak 42 urte bete zituen. Zorionik beroenak eta urte askotarako izan dadila.

ARRASATEN HILDAKOAK

Feliciano Jocano Beraza,
maiatzaren 19an. 70 urte.

Paulina Sierra Martinez,
maiatzaren 22an. 81 urte.

Eugenia Larrañaga Orbea,
maiatzaren 24ean, 84 urte.

ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK DEBALDE DIRA. TESTUA IDATZI ETA BIDALI GURE BULEGOETARA

TESTUA:

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....


Azoka kalea, 1 20.500 ARRASATE

Tfnoa: 77 08 15

Zer nahiago?

Aitor Astaburuaga

Ttukun fotokopia dendakoa



- Fotokopiak egitea ala enkuadernatzea? Fotokopiak egitea, errazagoa da.
- Edari bat? Sagardoa.
- Bizarra mozteko zer erabiltzen duzu? Atxurra.
- Bizikletan ala korrikan? Korrikan.
- Kutsaduraren kontuan zer egin daiteke? Lehengo gauza, denok kontzientziatzea.
- Arrasateko gauzarik politena? Monterron.
- Oporretan bidairik? Bai, abuztu osoan.
- Tarta ala fruta? Fruta bat.
- Kafesnea zopakin ala zurrut? Zopakin.
- Poltsa berorik erabiltzen duzu? Ez, sekula ere ez.
- Lagunetan zer maite duzu? Adiskidetasuna.
- Eta ezezagunetan zertan fijatzen zara? Aurpegiari.
- Sagardoa ala txakolina? Sagardoa.
- Gustoko erregalu bat? Edozein erropia.
- Mesedeak, hartzea ala egitea? Biak dira beharrezkoak.
- Txikiekin? Bai, gustatzen zait.
- Zure laneko gauzarik astunena? Pizketa lan egitea.
- Zer ospatzen duzu gustoren? Jaiak.
- Esan benetan, txukuna zara? Ez, gehienetan ez.
- Faxe bidali duzun leku arraroena? Egiptora eta Nikaraguara.

Bertsotan

Txapelketa

1

Urtero legez iritsi zaigu txapelketan deigarria partehartzaileen kopurua ez da izango meharra tabladutikan jaurtiko dute sua, txispa eta garra Leintz bailarako bertso eskolak badu horretan indarra txapeldun asko daude jokoan txapela berriz bakarria.

2

Txapela dugu diametroan berrogei metrotakoa buru haundia izanez gero gutzit berebizikoa diseinatzaile ospetsu batek eskuz diseinatutakoa "Boinas Elozegi"ko fabrikari propio egindakoa Leintz bailarako buru haundin bat baietz izan lehengo.

MAIDER OSA



MUXIBAR TABERNA

Ezin hoberik inguruan topatu!

Bizkaia Etorb. Tfnoa: 79 09 75 ARRASATE

TTUKUN

Fotokopiak
Enkuademazioak
Planoen erreproduzioa
Offseta

Ferrerias, 23
ARRASATE Tfnoa: 79 46 62



1971. San Frantzisko Xabier Ikastola

Eskolen arteko abesbatzen topaketak gauza berri samarra dira aste hone-tan ekarri dugun erretratoan agertzen denare-kin konparatuz. Baita Euskal Herriko

Kantu Txapelketak ere.

San Frantzisko Xabier Ikastolan txapelketarik ez baina kantu jaialdiak egiten ziren, gurasoentzat abestiz eta bertsoz osatutako emanaldiak egiten ziren eta. 1971koak dira argazki hauek eta kantuan ari direnak, ezkerrean **Andoni Iñarra**, eskuak pol-txikoan sartuta eta patxadaz kantuan.

Eskumako bikotea, gona motzez eta saltsa handiz kantuan, **Begoña Barrutia** eta **Alazne Barrutia**.

Hauek eta antzeko beste irudi asko ikusteko aukera izango du Ikastolaren historia ezagutzeko antolatu den erakusketara hurbiltzen denak.

UGARTE

Industri hornidurak

Arrasate pasealekua
Tfnoa: 79 73 00 / 79 83 96
Telefax: 793412

LETE
Toldoak

Kataide industrialdea, 14. pabiloia


- Arrasate: 79 23 83
- Bergara: 76 12 24
- Iurreta: (94) 681 76 19

MIREN

APAINDEGIA

Zarugalde, 23-2. Ezk.
ARRASATE Tfnoa: 79 96 90

Gurutzegrama




Horizontalak

1. Gestioa
8. +9= gramatikari eta musikari
9. Ikus 8
11. Prestamena
13. Edertu hasieran
14. (Ald.) Horoskopoko zeinua
15. Nagitsu
17. Italiako telebista katea
19. Betetasun

Bertikalak

1. Zeresan
2. Germanioa
3. Ur korrante handia
4. Kaiku
5. Aterabide
6. Kirk, aktore estatubatuarra
7. Garauak
10. Burgosko ibilgailuetan
12. Konforme
16. Musika nota
18. Diptongoa



JUAN BAUTISTA AGORRIA

BIDEO-EMANALDIA

Indiana Jones Arja galduaren bila

Tokia: Monterron kultur etxea


Eguna: maiatzak 30, larunbata

Ordua: arratsaldeko 4.30etan

Prezioa: 50 pezeta

Sarrerak: Monterronen

Antolatzailea: Arrasateko Udaleko Euskara Batzordea





Telebegi

Harreman arriskutsuak

Egunero gaueko 9.50etan

Zuzendaria: Stephen Frears
 Pertsonai nagusiak: Glenn Close, John Malkovich, Michelle Pfeiffer, Swoosie Kurtz.

Joku baten inguruan garatzen da pelikula osoa. Nahikoa da gezurrak esatea, zurikerietan ibiltzea, iruzurrak edo traizioak egitea, edozer, Merteuil-eko markesak lortu nahi duena lor-zearren.

Kamararen aurrean lehenengoz ATBn, zuzenean egin genituen lehenengo programetan jarri nintzen. Nahiz eta kamararen aurrean esperientzia apur bat izan, ez nuen esango ezer egitea edo esatea hainbeste kostatuko zitzaidanik.

Benetan latza iruditzen zitzaidan kamara bati hitz egitea, inpotentzia osoz, urduri jartzen nintzen, ahoa zabalik ezer esan ezinean, baina laster ulertu nuen, makina eta lente horien atzean, norbait zegoela. Baita talde osoa ere han, kamara, dekorazio, mikrofono eta trasto guztien artean, gizaki alaiak ginela demostratzeko prest geunden eta horrela izan zen.

Teknikoek eta partehar-tzaileek bat egin genuen laster eta nerbioek alde egin zuten. Oraindik urduri jartzen gara programa hasteke dagoenean, baina zuzenean emozioak baditu bere arriskuak.

Orain, kamarari begiratzaren diodanean, badakit bestaldean Arrasate eta inguruko jendea dagoela teknologiak eta komunikazioak egin dituzten aurrerakada horietan batzutan ematen du gizakiok alde batera gelditzen garela, eta ahaztu egiten dugula makina horiek guk sortu ditugula, eta gure onerako direla. Uxatu egiten gaitu kamara, ordenadore edo hainbat plastiko eta metalzko makinak guk erabiltzen ditugun zerbait dira eta nahiz eta hotzak irudit, berotasun eroaleak direla derizot.

ANNE IGARTIBURU

Programa berezia

Eskubaloiko Finala
Igandea 8.30etan
Astehenean 9.50etan

Ostiral Musikala

Gaiteroak izango dira protagonista
Ostirala 9.30etan.

Txatxaran

Herriko tabernariak izango dira estudioan
Asteazkena 9.15etan

Programazioa

31

IGANDEA

8.30etan. *Programa berezia.* Eskubaloiko finala. Irabaziz gero, kopa ere bertan izango da.

1

ASTELEHENA

8, 8.30 eta 9etan, *Berriak.* Informazio zehatza.
 9.20etan, *Mondra Sport.* Kirolen laburpenak eta bakoitzaren irudi eta bideoak.
 9.50. *Eskubaloiko finala.* Errepikapena.
 10.50etan, *Asteko zinea:* Harreman arriskutsuak.

2

ASTEARTEA

8, 8.30 eta 9etan, *Berriak.* Al-bisteen laburpena.
 8.20. *Erreportaiak.* Arrasate Kirol Proiektuaren jaia, Al Andaluseko astea, Ikastolako jaialdia.
 9.50. *Asteko zinea:* Harreman arriskutsuak.

3

ASTEAZKENA

8, 8.30 eta 9etan, *Berriak.*
 9.15. *Txatxaran.* Herriko tabernariak izango ditugu gure estudioan.
 9.50. *Asteko zinea:* Harreman arriskutsuak

4

OSTEGUNA

8,8.30 eta 9etan, *Berriak.* Albistegia.
 9.20. *ATBKetan.* Gure telebidtako lehiaketa.
 9.50. *Asteko zinea:* Harreman arriskutsuak.

5

OSTIRALA

8, 8.30 eta 9etan, *Berriak.*
 9.30. *Ostiral musikala.* Arrasateko gaiteroak.
 9.50. *Asteko zinea:* Harreman arriskutsuak.



**OLATZ
ETXABE**
Gizarte
laguntzailea



**JON IÑAKI
IZARZELAIA**
Irakaslea



**OSANE
LIZARRALDE**
Injinaria



**IGOR
ALTUNA**
Diseinatzaile
industrialia



**LIERNI
LASA**
Filologoa



**GERARDO
MENDIZABAL**
Injinaria eta
irakaslea




**AMAIA
GARRO**
Kazetaria eta
Publizista



**GERARDO
URIBESALGO**
Enpresaria



**SONIA
ORTUBAI**
Injinaria



**EUGENIO
BERGARETXE**
Nekazal
injinaria



**EDURNE
BALZATEGI**
Irakaslea



**ANDONI
IÑARRA**
Luthier-a



**RAKEL
KINTANA**
Hezitzaile
fisikoa



**JON
ANDUEZA**
Kazetaria




**MERTXE
SALABERRI**
Geologoa



**JOSU
VILLAR**
Injinaria

SAN FRANTZISKO XABIER IKASTOLA
25. URTEURRENA
Gure emaitzak agerian daude.



IKASTOLA
Jakina!



**MARTA
ARRIARAN**
Irakaslea